

LEGE-OINARRIAK
EMAKUMEZKOEN LASTERKETA HERRIKOIA. LEHIAKETA
28. LILATON (DONOSTIA)

SUSTATZAILEA

Promozio honen sustatzailea Clínica Baviera S.A. da (aurrerantzean Clínica Baviera). Promozio honen helburua Donostian Clínica Baviera markari garrantzia ematea, eta LEHIAKETA bat egitea da. Bertan, oinarri hauetan zehaztutako baldintzak betetzen dituen edozein pertsona fisikok parte hartu ahalko du, eta helburua CLÍNICA BAVIERA marka Donostian promozionatzea izango da.

EREMU PERTSONALA

2017ko martxoaren 5ean Donostian egingo den “LILATON” emakumezkoen lasterketa herrikoian izena eman duten eta dortsala duten 14 urtetik gorako emakumeek parte hartu ahal izango dute.

EREMU GEOGRAFIKOA

Lehiaketa Donostiako hirian izango da, eta LILATON lasterketako parte-hartzaileek euren borondatez hartu ahal izango dute parte bertan. Jatorria edozein duela ere, lasterketan izena emateko baldintzak betetzen dituen edonork sartu ahal izango du lehiaketan.

EGUNA ETA ORDUA

Promozioa lasterketaren egun berean hasiko da, hau da, 2017ko martxoaren 5ean goizeko 9:00etan, eta 10:00etan amaituko da. Lasterketa amaitutakoan, helmuga-gunean Clínica Bavierak jarriko duen standean egingo da zozketa.

LEHIAKETAREN PROZEDURA ETA IRABAZLEAK

Parte-hartzaileek 2817. postuan iritsiko den lasterkariak euren ustez beharko duen denbora adieraziko dute txartel batean. Txartel hori kutxa itxi batean sartuko da. Lasterketa amaitutakoan, Clínica Bavierak hautatutako esku garbi batek kutxan sartutako txartel guztiak banan-banan aztertuko ditu, txartel irabazlea aurkitu arte.

Lehiaketa 2817. postuan iristen den lasterkariak ibilbidea egiteko behar izan duen denbora erdiz erdi asmatzen duenak irabaziko du (minutuak eta segundoak).

Parte-hartzaile batek ere ez badu denbora zehatz-mehatz asmatzen, irabazlea bere txartelean denbora horretara gehien gerturatu dena izango da.

Irabazle kopurua ez da hirukoa (3) baino handiagoa izango. Lau (4) irabazle edo gehiago baldin badaude, euren arteko zozketa egingo da eta hiruk (3) bakarrik jasoko dute saria.

SARIA

Lehiaketako irabazleak BERREHUN (200) EUROKO opari-txartela jasoko du Forum Sporteko edozein dendatan gastatzeko.

SARI-BANAKETAREN XEHETASUNAK

Irabazlearen izena lasterketaren hurrengo egunean argitaratuko da, hots, 2017ko martxoaren 6an, lasterketako erakunde-antolatzailearen Facebookeko orrialdean.

DATU PERTSONALEN BABESA

Indarrean den Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa eta garapenerako araudia betez, jakinarazten dizugu emandako Datu pertsonalak isilpean gordeko direla eta Clínica Baviera S.A.ren fitxategi batean gordeko direla. Fitxategi hau behar bezala erregistratuta dago Datuen Babeseko Espainiako Agentziako Datu Pertsonalen Erregistro Orokorrean, eta abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuak ezarritako segurtasun neurriak betetzen ditu.

Jakinarazten dizugu zure Datu Pertsonalak modu egokian erabiliko direla zure parte hartzea eta irabazleen sari-banaketa kudeatzeko. Lehiaketa burutzeko tramite guztiak amaitu ondoren, datuak kudeaketa horretarako erabiltzeari utziko diogu, eta Pribatutasun Politikan ezarritakoaren arabera erabiltzen jarraituko dugu.

Azkenik, sarbide, baliogabetze, zuzenketa eta/edo aurkakotasun eskubideak erabil ditzakezu, baita mezu elektronikoko bidezko jakinarazpen komertzialak egiteko baimena baliogabetu ere, "Datu Pertsonalen Babeseko" erreferentziatzeko bi bideetako edozein erabilita, Clínica Bavierarekin harremanetan jarrita korreo elektronikoko bidez datospersonales@grupobaviera.es edo postaz Clínica Baviera S.A.ko Departamentu Juridikora, Paseo de la Castellana 20, 28046 Madril helbidera.

IRUDI-ESKUBIDEAK

Saria onartzean irabazleak baimena emango dio Clínica Bavierari bere izena eta irudia publizitate-helburuetarako erabiltzeko, ekimen honekin erlazionatutako promozio-materialean.

Parte-hartzaile bakoitzak, aurretiko adostasunarekin eta sariak dituen bitartean, irudi-eskubideak dituela eta promoziorako erabiliko den materialaren gaineko jabetza intelektuala duela adierazten du, eta horren ardura hartzen du. Modu horretan, Clínica

Bavierari baimena ematen dio bere irudia erabiltzeko, aurreko paragrafoan adierazitakoaren arabera.

ARDURAK

Lehiaketa honetan parte hartze hutsak oinarri hauek guztiz onartzea esan nahi du.

Sustatzaileak edozein parte hartze edo parte-hartzaile baliogabetzeko eskubidea izango du, lehiaketaren datuak modu ezegokian erabili dituela susmatzen badu.

Clínica Bavierak oinarri eta zehaztapen hauetan adierazitako baldintzak betetzen ez dituen edo lehiaketaren arauak eta helburuak urratzen dituen edozein parte-hartzaile lehiaketatik, eta, orokorrean, promoziotik baztertzeko edo kanpo uzteko eskubidea izango du.

Clínica Bavierak, bidezko arrazoiren bat badago, promozio honen baldintzak aldatzeko edo epearen aurretik bertan behera uzteko eskubidea du, eta oinarri berriak edo bertan behera uztea komunikatzeko ardura hartzen du, behar besteko aurrerapen eta publizitatearekin.

Ondorengoek ezingo dute promozioan parte hartu, eta ondorioz, ezingo dute saririk jaso: A) Clínica Baviera merkataritza-erakundeko langileek eta lehen mailako ahaideek; B) Clínica Bavierako produktuen enpresa-banatzaileetako, publizitate-agentzietako edo promozioarekin lotura duten agentzietako langileek.

Donostian, 2017ko martxoan.